

Jaun/andre agurgarria:

Idatzi honen bidez, atsegin handiz iragarri nahi dizut **“ICIC19 San Sebastian-Basque Country” Arreta Integratuari buruzko Urteko 19. Konferentzia** Donostiako Kursaal jauregian egingo dugula **datarren urteko apirilaren 1a eta 3a** bitartean.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak bultzatuko dute konferentzia International Foundation for Integrated Care (IFIC) erakundearekin batera eta honako hau izango da haren izenburua: **“Aldaketaren aldeko kultura partekatua: pertsonetan oinarritutako zerbitzu integratuen ereduak ebaluatzen eta ezartzen”**. Konferentzia hori da arreta integratuaren arloko nazioarteko ekitaldi nagusia eta urtero Europako hiri batean egiten da. Horren helburua arreta integratuaren inguruko ezagutza garatzea eta trukatzea da eta honako hauei zuzenduta dago: osasungintzako eta gizarte-zerbitzuetao kudeatzaileak, profesionalak, pazienteak eta erabiltzaileak, hirugarren sektoreko erakundeak, ikerlariak eta, hitz gutxitan esanda, gai horretan interesa duten banakoak eta erakundeak. Dakizun moduan, laguntza arloko integrazioa da Osasun Sailaren jardueraradatz nagusietako bat zahartzearekin, kronikotasunarekin eta mendekotasunarekin lotutako ildo estrategiaren baitan.

Konferentzia batez ere ingelesez egingo da eta osoko bilerak, lan-mintegiak eta aldi berean egingo diren beste saio batzuk jasotzen ditu. Donostiako ediziorako hizlarien artean, honako hauek etorriko direla baieztatu dute: Henry Mintzberg, irakaslea eta erakunde-teoriari buruzko hainbat libururen egilea (AEB); Michael Marmot, Osasunerako eta Gizarterako Nazioarteko Zentroaren zuzendaria (Erresuma Batua); eta Stephen Shortell, Berkeley Unibertsitateko Osasun Publikoaren Eskolako irakaslea (AEB). Gaur egun, Euskadiko erakundeek IFICekin batera jarraitzen dute lanean programa zientifikoa eta konferentzia antolatzearekin lotutako beste alderdi batzuk prestatzeko (aldi berean egingo diren jarduerak, komunikazio-eskaerak, komunikazioa, logistika, esponsorizazioa eta abar).

Azken urteotan integrazio estrukturalen eta klinikoan izandako aurrerapenen ostean, atzera begiratzeko eta egindako ahalegin guztia ebaluatzeko une egokia dela uste dugu. Horrekin lotuta, EAEn pilatutako esperientzia partekatu nahi dugu Europako eta munduko gainerako tokietako gure kideekin. Gure ustez, aukera ona da honako alderdi hauekin lotuta, besteak beste, etorkizunean aurre egin beharko diegun erronken inguruan elkarrekin gogoeta egiteko: lehen mailako arreta sendoagoa, pertsonak oinarri dituzten arreta-ereduak, osasun digitalaren inpaktua, partekatutako kulturak sortzea eta etxean jasotako arreta soziosanitario integratuagoa. Horregatik, zurekin eta zuen erakundearekin partekatu nahi dugu aukera hau. Konferentziaren garapenaren eta parte hartzeko aukeren inguruko kontsulta egin dezakezu webgunean (<https://integratedcarefoundation.org/events/icic19-19th-international-conference-on-integrated-care-san-sebastian-basque-country>).

Bertan izango zarelakoan, jaso ezazu gure agurra,

Estimado/a Sr/Sra,


Tengo el gusto de anunciarle la celebración de la **19ª Conferencia anual sobre Atención Integrada “ICIC19 San Sebastian-Basque Country”**, que tendrá lugar entre el **1 y 3 de abril del año que viene** en el Palacio Kursaal de Donostia-San Sebastián.

Bajo el título de **“Una cultura compartida por el cambio: evaluando e implementando modelos de servicios integrados centrados en las personas”**, la Conferencia está impulsada por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Donostia junto con la International Foundation for Integrated Care (IFIC). La Conferencia, principal evento internacional en atención integrada, se celebra anualmente en una ciudad europea y busca el desarrollo e intercambio de conocimiento sobre la atención integrada y está dirigida a gestores sanitarios y de servicios sociales, profesionales, pacientes y usuarios, entidades del tercer sector, investigadores y, en definitiva, individuos y organizaciones con interés en la materia. Como sabe, la integración asistencial es uno de los principales ejes de actuación del Departamento de Salud dentro de la línea estratégica relacionada con el envejecimiento, cronicidad y dependencia.

La Conferencia, que se desarrollará principalmente en inglés, se compone de sesiones plenarias, talleres de trabajo y otras sesiones paralelas. Entre los ponentes para la edición de Donostia se encuentran confirmados Henry Mintzberg, profesor y autor de numerosos libros sobre teoría organizacional (EEUU), Michael Marmot, Director del Centro Internacional para la Salud y la Sociedad (Reino Unido) y Stephen Shortell, profesor de la Escuela de Salud Pública de la Universidad de Berkeley (EEUU). Actualmente las instituciones vascas involucradas siguen trabajando junto a IFIC en la elaboración del programa científico y otros aspectos de la organización de la Conferencia (actividades paralelas, petición de comunicaciones, comunicación, logística, esponsorización, etc.).

Tras los avances en la integración estructural y clínica de los últimos años, pensamos que es un momento oportuno para mirar hacia atrás y evaluar todo el esfuerzo realizado, compartiendo la experiencia de la CAPV con nuestros colegas en Europa y el resto del mundo. Creemos que es una buena ocasión para reflexionar de manera conjunta sobre los desafíos futuros que debemos afrontar en campos como una atención primaria más fuerte, los modelos de atención centrados en las personas, el impacto de la salud digital, la generación de culturas compartidas y una atención sociosanitaria en domicilio más integrada, entre otros, y por ello queremos compartir con usted y su organización esta oportunidad. Puede consultar el avance en la configuración de la Conferencia y las posibilidades de participación en su página web (<https://integratedcarefoundation.org/events/icic19-19th-international-conference-on-integrated-care-san-sebastian-basque-country>).

Esperando contar con su presencia, reciba un cordial saludo,



Jon Darpón

Osasun Sailburua / Consejero de Salud



International Conference
on Integrated Care
1-3 April 2019
San Sebastian, Basque Country



A shared culture for change:
Evaluating and implementing models of integrated people-centred services

www.integratedcarefoundation.org/icic19

